

"Bederatzietatik bederatzietara"  
Leo Perutz  
euskaratzailea: Anton Garikano  
Alberdania / Elkar, 2003

Hiru ziren. Dena literaturaren alde eman zutenak. Hirurak, gainera, Pragako juduak; hirurak, 1882 eta 1883 bitartean jaiok; hirurak, infernua lurrean ikusi zutenak. Kafka da ezagunena, hiruretatik, martiri gisa hartua baita gaur egun. Ernest Weiss eta Leo Perutz izan ziren beste biak. Ernest Weiss Kafkaren adiskide mina izan zen, eta Leo Perutzek, Kafkak bezala, aseguru-etxe batean egin zuen lan. Kafkak erietxe batean eman zuen azken arnasa. Weissek, zainak ebaki zituen, naziak Parisen sartu zirenean, haraino ihes egin baitzuen, beste judu askok bezala. Leo Perutzek Israela alde egin zuen, eta Salzburgon hil zen, 1957an, oporraldian.

Pragako hirurek benazko obra egin nahi zuten. Kafkari buruz hobe oraingo ez hitz egitea. Weissek arimaren historia kriminala idatzi zuen, eta Perutzek, Bruegel eta Goyaren antzera, azken epaiketako koadroa: hondakinak zituela dekoratu, norberaren suntsiketa bizitzeko bultzatzaile, eta infernua ondorena. Perutzen mundu literarioan, izan ere, kondenatuak daude, alde zurretik kondenatuak. Eta kondenatuok bi aurpegi dituzte. Edo bufoi moduan jokatzeko dute (Turlupinek, esaterako), edo Jainkoaren aurka altxatzen dira. Perutzen heroiak oroitzapenik gabeko alderraiak dira, poeta amnesikoak, ihes egindako presoak (liburu honetako protagonista, esaterako) inongoak ez diren hiritarrak, Judu Erratiaren lagunak denak, beren nortasuna zein den ez dakitenak, edo beren nortasuna laino artean ezkutatu nahiago dutenak.

Leo Perutz idazle handia da, eta ez oso ezaguna. Gazteleraz ere, haren lanen herena besterik ez da argitaratu oraindino. Horregatik pozgarria da itzulpen hau, euskal idazleak eta euskal irakurleak jakin dezaten zein izan zen Pragako judu hau, Kafka eta Weissekin batera jaiok eta munduan zehar galdua, beste asko bezalaxe.

*El Diario Vasco, 2003-12-12*